

AMETSA

GEZURRA, edo chanchetako gauza dirudi, bañan nere ametsak aztunak oi dira; asko badira esan oi dutenak beñere ametsik ez dutela egiten.

Zorionekuak orla oi diranak, nik ez nezake orlakorik esan, zergatik lo ez banago ere, badet zerengatik amets egiñ, ta ori aztu eziñ zaidan euskaragatik da. ¿Nola aztutzen utziko diyot, nere amak maitasun aundiz erakutzi ziran izkuntz ederrari? ¿Billaukeri bat ez litzake izango orlakorik egingo banu?

Bai, ta ez chikiya ere; goguan daukat gaur ere, aurcho bat nitzala magalian arturik nola kantatzen ziran amak lo eragiñazteko, ta polliki, polliki, nola erakutzi ziran euskeraz izketan edo mintzatzen; eta itzegiñaz ikasten dan izkuntzik ez da aztutzen nonta zabarkeriya nagusitzen ez dan bategana.

Asko izango dirala uste det, nigatik esatera auzartuko diranak, izkribalari onek beste gairik ez du arkitzen euskara baizik.

Bañan, ¿zer da gauz oberik nork bere ama maitatzia baño? Biyotzak, ¿norgana artzen du lenengo maitasuna, amagana ez bada? Amaren bular mokotik ez degu artzen maitasunezko zumo gozo gozua? Orduan ¿zertako ukatu beñere ordaintzera irichiko ez geran zor ori, baldiñ jayo giñanetik geregaiñ badaukagu? ¡Ezin ordainduko degula! ¿Tazer? Ori besterik ez bada, ez det uste amak ezturatuko gaituenik, ukatu gabe berari jarraitzen badiyogu zintzo, zintzo; ta bere bide onez guganduko dan eriotzak kitatuko ditu guztiyak.

Ez naiz bakarra euskararekiñ beti ametsetan nabillena, ta ez dit onek poz chikiya ematen; bada, nere adiskide ziñetako euskaldun beste batek ere, ez deritzot beste ametsik egiten dubenik azpaldiyan, eta eztiya aski dubela ez iruditurik luma gošatzeko, badiruri ugaritasun aun-

diz azukretan buztitzen, edo ur beltzetan buzti ondoren azukrontziyan sartzen dubela.

Ainbesterañoko ametsak egiten ditu, non leku chiki batian euskara idukitzia guchi iruditurik eta zabaldu nairik al bait urrutiyetara, adirazidu euskal albistari batetik, nai edo gogo duten guztiyai erakutziko diyela izkribuz euskeraz itzegiten.

Orra zenbaterañoko maitasuna agertzen duben bere ama euskaraganako; bañan nola bakoitza, egiten degun ametsak ez gaituen jartzen iritzi batera, nik, nere bart arratseko ametsetik jabetu naizen iritziya agertzeko eskubidia badaukadala uste det, eta utsegiñian banabill, barakatuko ditalako iritziyan geldituko naiz.

¿Ikusten dezute noraño dijuan, eta zer lan azpergarriyari eldu nai diyon, itzegiñaz ere ikasten zalla dala diyoten izkuntzarekiñ?

Izkribuzko erakuste lan ori iruditzen zait oso neke aundikua, zergatik D'Aranatz jaunak esaten digunez bere neurtiz batzuetan, Diabrua etorri zala mundura euskeraz ikasteko asmo osoarekiñ, ta berrogei urte igaro ondoren euskal-erriyan, itzik ikasi gabe ta azper, azper, egiñik biurtu zala bere Leitzurira.

Bada, Diabrua izanik aiñ almen aundikua, ¿nola etzuben ikasi izkuntz au besterik itzegiten ez dan lekuan? Eta au itzegiñaz: ¿zer egingo ote zuben izkribuak bitarteko dirala ikasi bear izan bazuben?; uste det erotzekua izan bazan erotuko zala.

¡Ametsa! ¡Ametsa! Gaur goiz aldera egin detana ere, guztiz aztuna izan da, ta nekekua; oraindik ere ez nago nere onetan.

¿Nork esan bear ziran neri, bart oyeratu nitzanian, Suleitzeko (Infernuko) ateraño irichi bear nubenik ametsetan, eta au atea jo ondoren agertu bear zitzaidala Luzbel, euskaraz ikastera etorri zana bera, burrunzti goitu bat eskuetan zubela?

Idiki ziranakin bat galdetu ziran nongotarra nitzan, eta esan niyonian euskalduna nitzala, amorruan amorruez botarik eskuan zeukan sarde goritua, ichi zuben atia esanaz: zoazkit emendik euskaldun egoz gogorra, zuretzako ez dago nere mendeko Leitzetan pertzikana ta.

Bañan esnatu naizenian ¡jura poza nigandu da! Suleitzetan (Infernuetan) arki nitzala uste nubelarik, arkitu naiz Ama Euskara-ren zelai ederretako arta buruen churikiñakiñ egintako laztaida egoki landutako baten gañian etzanda. ¡Beti ametsetan!